

1. GAIA: “Mortis causa oinordetza”

I.-ARAUDIA

-Kode Zibila: 657-1087 artikulua.

-Aragoi: 1/1999 Legea, otsailaren 24koa, Heriotzagatiko Oinordetzari buruzkoa (BOA 1999/3/4).

-Balear Uharteak: 79/1990 Legegintzako Dekretua, irailaren 6koa, Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioari buruzko Testu bateratua onartzen duena (BOCAIB 1990/10/2), 69-84. artikulua.

-Euskal Autonomia Erkidegoa: 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa (EHAA 1992/8/7), 27-92. artikulua; 3/1999 Legea, azaroaren 26koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez (EHAA 1999-12-30), 153.-188. artikulua.

-Extremadura: Baylioko Forua (Karlos III.ak 1778an emandako Pragmatika, *Novísima Recopilación* delakoan jaso).

-Galizia: 2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako Zuzenbide Zibilar buruzkoa, 181-308. artikulua.

-Katalunia: 40/1991 Legea, abenduaren 30ekoa, Kataluniako Zuzenbide Zibilean Heriotzagatiko Oinordetzari buruzko Kodea (DOGC 1992/1/21).

-Nafarroa: 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa onartzen duena (BOE 1973/3/7tik 10era, eta 12tik 14ra), 148-157 eta 165-345. legeak.

II.-OINORDETZA: KONTZEPTUA ETA MOTAK

Pertsona bat *oinordetza* bere posizioan jartzea da, berak uzten dituen harreman juridikoetan beste batek ordezkatzeko (adb. enpresa baten lehendakariak dimititu egiten duenean eta bere postua beste

norbaitek hartzen duenean, oinordetza eman dela esan dezakegu, lehendakari berriak aurrekoa oinordetu duela, alegia). Harreman juridikoa ez da, beraz, aldatzen, pertsona baizik. *Subrogazio pertsonala* gertatu da harreman juridiko berean.

Oinordetza **unibertsala** edo **partikularra** izan daiteke. Unibertsala dela esaten dugu oinordekoa 'ordezkatuaren' harreman juridiko guztietan subrogatzen denean, hau da, pertsonaren ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak (edo hauen proportzio bat) beste norbaitengana igarotzen direnean. Oinordetza partikularra, aldiz, harreman juridiko jakin baten norbait beste baten ordeztzea litzateke (eskubide edo betebeharrak zehatz bat jasotzea soilik).

Halaber, oinordetza **inter vivos** edo **mortis causa** izan daiteke. Lehenengoa, bizirik dauden pertsonen artean gauzatzen den subrogazioa da (adb. lehenago aipatutako enpresaren lehendakari aldaketa). Bigarrena, ordea, pertsona bat hil egiten denean, bere ondarean ematen den 'ordezkatzea' edo subrogazioa da. Azken hau da gure irakasgaiaren muina, oinordetza zuzenbideak arautzen duen fenomeno, hain zuzen ere.

III.-MORTIS CAUSA OINORDETZA

3.1.-Kontzeptua

Legeek ez dute *mortis causa* oinordetza zer den definitzen. Kode zibileko 661. artikulua ematen du kontzeptu legal baten definiziorik antzekoena: *los herederos suceden al difunto por el hecho sólo de su muerte en todos sus derechos y obligaciones*. Artikulu hau abiapuntu hartuta esan genezake, beraz, *mortis causa* oinordetza **pertsona baten subrogazioa dela, beste batek hiltzerakoan uzten dituen ondasun, eskubide eta betebeharrak transmitigarrietan**. Pertsona bat (edo bat baino gehiago) subrogatzen da, beraz, hildakoaren ondasun, eskubide eta betebeharrak (aktiboan zein pasiboan), hauek transmitigarriak direnean soilik. Hala, hildakoaren nortasunaren eskubideetan, eskubide politikoetan zein ondarezko eskubide edo betebeharrak ez transmitigarrietan ez da *mortis causa* oinordetzarik gauzatuko, hoiek ez baitira pertsonaz-pertsona besterendu daitezken horietakoak.

Dirudienez, hasierako gizarteetan, objektuak norberaren hedaduratzat hartzen ziren eta, horrenbestez, ezin ziren besterendu; horregatik, hildakoa bere gauzekin batera lurperatzen zen, bere arimaren eta gorputzaren atal balira bezala. Gero, behar

ekonomikoak eskatuta, gauza horiek familiakoengana igarotzen hasi ziren; hau da, oinordetza agertu zen. Beraz, ikuspegi juridikotik, hildakoaren ondasunen gaineko jabetza-eskubidea eskuratzeko modua da oinordetza, eta haren ingurukoei aitortzen zaie; hala, titularra aldatu arren, jabetza-eskubide berberak bizirik irauten du eta ondasunak, izaeraz, ez dira *res nullius* bihurtzen.

Idea hori islatu da testu juridikoetan ere. Espainiako Konstituzioak 33. artikuluan aitortzen ditu jabetza pribatua (*propiedad privada*) eta jaraunspena (*herencia*). Europarentzako Konstituzioa ezartzen duen Tratatuak ere zera dio: *toda persona tiene derecho a disfrutar de la propiedad de los bienes que haya adquirido legalmente, a usarlos, a disponer de ellos y a legarlos* (II-17.1. art.).

3.2.-Oinarria edo justifikazioa

Historian zehar, *mortis causa* oinordetzaren oinarriaren aldeko eta kontrako eritziak agertu izan dira, hau da, herentziaren fenomenoaren onartzen dutenak eta berau gaitzesten dutenak. Azal ditzagun laburki.

A) TEORIA NEGATIBOAK

Doktrina sozialisten eremutik heldu zaizkigu *mortis causa* oinordetzaren kontrako eritzi nabarmenenak. MARX eta ENGELSEN teoriak, oinordetzeko eskubidea klase burgesaren pribilegio gisa kontsideratzen dute. Haien ustetan, gizartea da (hots, Estatuak) hiltzen diren gizabanakoen ondarea jasotzeko eskubidea duen bakarra; izan ere, gizarteari esker lortzen dituzte herritarrek bizitzan zehar pilatzen dituzten ondasunak, eta horregatik, hiltzean, *komunitatearen* interesa eta onura erizpidetzat hartuz, honi bueltatu behar zaio lehenago hartutakoa. Gizartetik hartutakoa gizarteari itzultzea, nolabait.

Teoria hauek, hala ere, era malguagoa baten interpretatu dituzte zenbait autorek. Hauen esanetan, hildakoaren ondasunak bi multzotan banatu behar dira bere oinordetzari bagagozkio: a) *produkzio bideak* eta b) *bere lanarekin lortutako ondarea*. Lehenengo taldea osatzen duten ondasunak (lurrak, enpresak, lantegiak, tresneria...) berriz gizarteratu behar direla deritzote autoreok, izan ere Estatuak jarriko baititu berriz herritarren eskuetan, komunitatearen onuran. Bigarrenaren barne daudenak, ordea, hildakoak bere esfortzuaz baliatuz bizitzan zehar lortu izan dituenak, bere oinordetzaren parte izan behar direla ulertzen dute.

B) TEORIA POSITIBOAK

Liberalismoaren argira, aldiz, sutsuki defendatu da oinordetza eta jaraunspena. Hauek dira, besteak beste, makina bat autorek erabili dituzten argudioak: a) Jabetza eskubidea mugagabea da eta jarraipena izan dezan, jaraunspenaren bidez transmitituko zaie datozen belaunaldiei; b) bere lana dela medio lortutako ondarea libre xedatzeko eskubidea dauka titularrak; d) hildakoaren familiaren babesa bermatu behar du oinordetzak. Hau da, egun, doktrinaren gehiengoak bere egiten duen eritzia. Autore gehienek aburuz, oinordetzaren fenomeno existitza eta arautzea komenigarria da, batez ere, *segurtasun juridikoari* jarraiki. Imagina dezagun, bestela, pertsona bat hiltzean bere ondasun guztiak *nullius* bihurtzen direla, hau da, jaberik gabe geratzen direla; edo eta kreditu-eskubideak hartzekodun zein zordunik gabe.

Gizarteak oinarri ekonomikoa nekazaritzan zuen garaian, funtsezko erakundea zen oinordetza-zuzenbidea, batez ere bildutako aberastasuna eta boterea transmititzeko eta iraunarazteko bidea ematen zuelako (latifundismoa, maiorazkoak...); hala, zuzenbide hori gutxi batzuentzat bakarrik zen baliagarria.

Gaur egun, ikuspegi politiko-sozialean, oro har, garrantzia galdu du. Baina, bestalde, hiritar guztiek hartzen dute parte oinordetzaren antolaketan, hala beste norbaitena jasotzeko, nola norberarena bideratzeko. Ikuspuntu beretik, pertsonen bizi-itzaropena handitu denez, jaraunseleak pertsona helduak izaten dira. Horrek eragina izan beharko luke oinordetza-sisteman, eta, bereziki, senipartearen funtzioan; seniparteak zentzua du kausatzaileak gazterik hiltzeko arriskua duenean, hala oraindik autonomia ekonomikorik ez duen umeari bermatzen baitzaio mantenua eta laguntza. Jatorrizko arrazoia zen hori, baina, gaur egun, aparteko kasuetan gertatzen da eta, beraz, nahikoa da laguntza behar duenari mantenu-eskubidea bermatzea, berak bere baliabideak lortzeko aukera izan bitartean.

Onuradunen ikuspegitik, eskubide errealak eskuratu eta erlazio juridikoak bereganatzeko tresna teknikoa da oinordetza. Egun, ordea, ondasunak bideratzeko beste tresna berriak hedatu dira, horren ondoan: bizi-aseguruak, aberastasuna banatzeko eta emateko; fundazioak, ondarearen norakoa erabakitzeko; enpresak, oinordetzaren objektua partizipazioak bakarrik izan daitezen.

Etorkizunari begira oinordetza-zuzenbidea aldatzekotan norantz jo erabakitzeko, faktore soziologikoak aztertu eta neurtu beharra dago: testamentugilearen ezaugarriak (adina, maila ekonomikoa) eta haren erabakiak; testamenturik egiten ez duenaren ezaugarriak (adina, maila ekonomia); norberak bere ondasunak banatzeari buruz duen iritzia. Gaur egun Kode zibilean indarrean dagoen oinordetza sistemari bagagozkio, autore askok bultzatzen

dute honen eguneratzea, 1889an arauketa hori oinarritu zuen errealitatea eta gaurkoa aunitz ezberdinak baitira.

3.3.-Mortis causa oinordetza motak

Bi azpimultzo bereiziko ditugu atal honetan.

A.-Borondatezko oinordetza eta oinordetza legala edo abintestato

Oinordetza-zuzenbidean, bada arau nagusi bat: edonork antola dezake, hiltzen denerako, bere erlazio juridikoen xedea eta helburua, baldin eta ordenamendu juridikoak hori egiteko nahiko gaitasun aitortzen badio (KZko 662. art.). Pertsona orok bi tresna mota dauzka eskura bere oinordetza antolatzeko:

1.-Testamentua: aldebakarreko negozio juridikoa da hau, kausatzaileak erabili dezakeena bere oinordetza antolatzeko (oinordekoak izendatu, bakoitzari zenbat utzi, oinordekoei ezarritako baldintzak eta epeak...). Testamentu bidezko oinordetza da testamentu bidez antolatzen dena eta Kode zibilak onartu eta arautzen duen bakarra da, gainera, borondatezko oinordetzaren eremuan (KZeko 667. art.).

2.-Oinordetza ituna edo kontratua: bi edo pertsona gehiagoren arteko negozioaren bitartez antolatzen da kausatzailearen oinordetza, eta aldebiko tresna izanik, printzipioz, errebokaezina izango da. Kode zibilak debekatu egiten du oinordetza ituna (1.271.II art), baina Estatu mailan indarrean dauden zenbait ordenamendu autonomikok sakonki arautzen dute, EAEarena tarteko (EHFZZLko 74 eta 179. atalak).

Kausatzaileak ez badu borondatez bere oinordetza antolatzen legeak ezartzen ditu berau banatzeko erizpideak. Horri deitzen zaio, beraz, *oinordetza legala* edo *abintestato* oinordetza, hau da, testamentu edo kontratu bidez antolatu ez dena eta legeak bideratu duena (KZeko 658. art.). Bide bat edo bestea hartuta, Espainiar ordenamendu juridikoan, behintzat, oinordetza beti emango da: edo kausatzaileak erabakitzen du edo, bestela, legeak.

Mistoa ere izan daiteke oinordetzaren diseinua: zati baten borondatezkoa eta beste zati baten, legala (KZeko 658.3 art.).

B) Oinordetza unibertsala edo partikularra

Oinordetza unibertsala hildakoaren ondare osoan edo zati proportzional baten ematen den subrogazioa da, hots, oinordekoak, jaraunspen guztia edo honen zatiki bat jasotzen duenean. Partikularra, aldiz, gauza jakin baten gaineko subrogazioa da,

oinordekoak kausatzailearen gauza, eskubide edo betebeharrak zehatz bat jasotzen denean ematen dena (kotxe bat, kreditu bat, etxe bat...). Lehenengoak *jaraunspen* eta *jaraunse* kontzeptuak dakartzkigu; bigarrenak, berriz, *legatu* eta *legatu-hartzailearenak*. Aurrerago aztertuko ditugun kontzeptuak izango dira hauek.

IV.-OINORDETZA-ZUZENBIDEA

Zuzenbide zibilarren barne bada atal bat oinordetza-zuzenbidea izena hartzen duena. Kausatzailearen oinordetzaren arauketa du helburu alor honek: beratu da hildakoaren ondasun, eskubide eta betebeharrak transmitigarriekin zer gertatuko den arautzen duen alorra. Kode zibilean 657 eta 1.087 artikuluek finkatzen dute espainiako oinordetza sistemaren arauketaren hasiera eta amaiera, betiere kontutan hartuta autonomia erkidego batzuk badutela berezko araudia oinordetzari dagokionez.

Oinordetza-zuzenbideak hainbat oinarri biltzen ditu:

(1) *Dogmatikoa*: Konstituzioak babestutako balioetat hartzen du oinordetza.

(2) *Praktikoa*: gauza materialen gaineko ahalmenak eta besteekin erlazioak izateko aukera aitortzen bada, titularra hiltzen denean, segurtasunak eskatuta, harreman juridikoan eta ekonomikoan bermatu behar da harreman juridiko horiek izatea eta jarraitzea.

(3) *Printzipiozkoa*:

(3.1) Gauza-zuzenbidearen ikuspegitik, jabetza-eskubideak, izaeraz, jarraipena eskatzen du.

(3.2) Obligazio-zuzenbidearen ikuspegitik, norbaiti bere ondasunak xedatzeko eskubidea aitortzeak hildakoan ondasunekin zer egin erabakitzeak askatasuna aitortzea dakar.

(3.3) Familia-zuzenbidearen ikuspegitik, familiaren aldeko joerak etorkizunerantz bideratu dira ondarea sendikoei emanda.

Zuzenbide zibileko teknikak oinordetza-zuzenbidean topatzen du landu beharreko alorrik aberatsena eta, aldi berean, zailena. Batetik, tradizio doktrinalik emankorrena agertzen delako han; eta, bestetik, Zuzenbide zibileko gainerako alorrak han biltzeak korapilo ugari askatu beharra sortzen duelako oinordetzaren beraren izaeragatik. Oinordetza-zuzenbidean topatzen dira:

(1) *Pertsonari buruzko zuzenbidea*: norbait hiltzen da, eta gaitasuna duen beste norbaitek hartu behar du haren lekua.

(2) *Ondareari buruzko zuzenbidea*: ondare-erlazio juridiko guztiak hartzen dira kontuan: hala obligaziozko erlazioak, nola eskubide errealak.

(3) *Familiari buruzko zuzenbidea*: neurri batean, halabeharrez, familiaren barruko gertaera delako beti, eta legeak ahaidetasun hurbilena hartzen duelako irizpidetzat oinordekoa izendatzeko.

Gainera, *mortis causa* egindako negozioek badute berezitasun bat arazoak zailtzen dituen: berez, printzipioz, eragina dute egilea hil ostean. Horregatik, negozio horiek kontu handiarekin egin behar dira, gerora ezin direlako aldatu edo eta, interpretatzeko garaian, egileari aitortza hartzerik ez dagoelako.

V.-ESPAINIAR ESTATUKO OINORDETZA-ZUZENBIDEAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Espainiako Konstituzioak hala dio bere 33. artikuluan: *Konstituzioak jabego pribatuaren eskubidea onartu egiten du, baita jaraunspenarena ere*. Babes honi jarraiki, Kode zibilak honako printzipioen arabera arautzen dute oinordetza:

1.-Hildakoaren ondarearen zati bat gizarteratzea, zergen bidez.

2.-Kausatzailearen ondorengo eta aurre-ahaideei zein ezkontideari ondarearen zati bat zor zaie, SENIPARTEAREN bitartez heltzen zaiena.

3.-Senipartea babestuta, geratzen diren ondasunak askatasunez xedatu ditzake kausatzaileak.

4.-Kausatzaileak ez badu borondatez bere oinordetza diseinatzen, legeak egingo du bere orde.

VI.-JARAUNSPENA: MORTIS CAUSA OINORDETZAREN OBJEKTUA

Oinordetzaren alde objetiboa, hau da, objetua, jaraunspena da eta hau kausatzaileak hiltzean utzitako ondareak osatzen du (*caudal*

relicto). Kode Zibileko 659. artikulua zera dio: *la herencia comprende todos los bienes, derechos y obligaciones de una persona, que no se extingan por su muerte*. Hildakoaren ondare osoa erregimen juridiko beraren mendean egongo da, osatzen duten elementuak izaeraz nolakoak diren kontuan izan gabe. Ez da ondare-masa autonomo bat eta ez du izaera juridikorik. Baina zenbait efektutarako, legegileak era bateratuan tratatzen ditu jaraunspena osatzen duten ondasunak, eskubideak eta betebeharrak. Horregatik, jaraunseak jaraunspena onartzen du eta ez ondasun bakoitza banan-banan; eta zorrak besterik ez dituen hildakoaren ondarea ere jaraunspena da.

Kodeak ez du zehazten zein erlazio juridiko transmiti daitezkeen eta zein ez oinordetzaren bidez. Oro har, *eskubide errealak, kreditu-eskubideak eta familiako ondarearen gaineko eskubideak transmiti daitezke*; politikoak (erregearen oinordea salbuetsita), zenbait eskubide administratibo (funtzionario kargua) eta pertsonalitateari buruzko eskubideak, berriz, ez. Hala ere, horietatik zenbait transmiti daitezke pertsonaren eremukoak -alegia, izaeraz txit pertsonalak- izan arren; esaterako, autorearen zenbait eskubide moral, eta filiazioa eskatzeko edo inpugnatzeko akzioak; eta, ondarearen eremukoak berez transmitigarriak izan arren, horietako hainbat ezin dira transmititu. Azken horiei buruz, Kode Zibileko 1257. artikulua honako hau dio: *los contratos sólo producen efecto entre las partes que los otorgan y sus herederos; salvo, en cuanto a éstos, el caso en que los derechos y obligaciones que proceden del contrato no sean transmisibles, o por su naturaleza, o por pacto, o por disposición de la ley* (kzeko 525. eta 1595. artikulua, eta hil arteko eskubideak; esaterako, usufruktua).

VII.-OINARRIZKO HIZTEGIA

1.-OINORDETZAREN ASPEKTU SUBJETIBOA

1.-**Kausatzailea**: *Causante*.

Mortis Causa-zko oinordetzaren funtsa heriotza bera da. Pertsona bat hil egiten denean, berak utzitako ondarea (ondasunak, eskubideak eta betebeharrak) bere ondorengoen, eta hildakoak aukeratzen dituenen artean banatu egiten da. Hildakoari *kausatzailea* deitzen zaio, hain zuzen ere, *m.c* oinordetzaren kausa sortzen duena. Berak pizten du bere oinordetza prozesua. Kausatzailea hil egiten den momentuan irekitzen da bere oinordetza eta momentu horretatik abiatuta aztertuko da ondorengoen edo aukeratuen gaitasuna, alegia.

2.-Oinordekoa: *Sucesor*.

Oinordeko izenarekin ezagutzen da, orokorki, kausatzailearen ondarearen osotasunean, zati edo proportzio batean edo eta gauza zehatzetan haren tokian ipiniko den pertsona. Hauen artean bi daude:

2.1.- Jaraunsle: *Heredero*.

Oinordeko guztiak ez dira jaraunsleak izan behar, baina jaraunsle guztiak oinordekoak dira. Horrela esan leike, oinordekoa kategoria zabalago bat dela, eta honen barnean, jaraunslea dagoela. Jaraunslea *titulu unibertsal* baten oinarrian da oinordeko, hau da, ondasun guztiak jasotzen ditu edo hauen proportzio edo kuota bat (herena, erdia, laurdena...).

2.2.-Legatu hartzailea: *Legatario*.

Legatu hartzailea, era berean, oinordeko bat da, jaraunslea bezala. Baina honek, titulu unibertsala ez du oinarri, *banakakoa* baizik. Horrela, legatu hartzaileak ondasun zehatzak jasotzen ditu kausatzailearen jaraunspenetik (etxe bat, kotxe bat, kuadro bat...).

3.-Testatzailea: *Testador*.

Bere borondatea, hil ondorengorako, testamentu bidez adierazten duena bizirik dagoen bitartean. Nahi beste testamentu egin daitezke bizitzan zehar, hil aurretik egindako azkenak soilik balioa izango duelarik.

4.-Albazea: *Albacea*.

Testamentu bidezko oinordetzan, testatzaileak testamentuan ezarritako xedapenak betearaziko dituen pertsona edo pertsonak. Testatzailea hil eta gero, testamentua irakurri egiten da. Testatzaileak izendatu egin badu albazea bat edo gehiago, momentu horretan ezagutuko da eta bere esku egongo da testatzailearen borondatea betearaztea. Normalean testatzailearen konfidantzazko pertsona bat izaten da.

5.-Kontatzaile partitzailea: *Contador partidor*.

Oinordetzak etapa edo fase batzuk ditu, bere hasiera edo irekitzetik, bukaerararte. Partizioa edo banaketa azken fasea da, zeinaren bidez oinordekoei bakoitzari dagozkion ondasunak ematen zaizkien, bai jaraunsleei, bai legatu hartzaileei, baldin badaude. Fase honetan partizio edo banaketa hori burutuko duten tekniko edo aditu batek edo batzuk har dezakete parte. Hauek dira kontatzaile partitzaileak.

2.-OINORDETZAREN ASPEKTU OBJETIBOA

6.-Borondatezko oinordetza: *sucesión voluntaria*.

Testamentu bidez edo eta oinordetza kontratu bidez ematen dena. Instrumentu hauen bidez kausatzaileak bere hil osterako borondatea adierazia utzi dezake bizirik dagoen bitartean.

7.-Lege oinordetza edo abintestato oinordetza: *sucesión legal, sucesión intestada o abintestato*.

Borondatezko oinordetzarik eman ez bada, hau da, kausatzaileak ez badu bere hil ondorengo borondatea testamentu edo kontratu bidez adierazi, Kode zibilak 930-955 artikuluetan, bere ondasunen banaketa burutzeko arau batzuk ezartzen ditu. Beraz, zuk ez badituzu zure ondasunak nola banatu nahi dituzun adierazten, legeak egingo du.

8.-Oinordetza mixtoa: *sucesión mixta*.

Kausatzaileak bere ondarearen zati batekiko borondatea azaldu du testamentu edo itun bidez, baina beste zati batekiko ez. Bata, beraz, borondatezko oinordetzaren barne kokatuko da, bere araudi propioarekin, eta bestea, aldiz, lege oinordetzaren barne.

9.-Jaraunspena: *herencia*.

Kode zibileko 659. artikulua dioen bezala, pertsona baten heriotzarekin iraungitzen ez diren ondasun, eskubide eta betebeharrak osatzen dute bere jaraunspena, hots, bere oinordekoei transmitituko zaiena, alegia.

10.-Legatua: *legado*

Lehenago ikusi dugun bezala, legatu bat legatu hartzaileak kausatzailearen oinordetzan jasoko duen gauza konkretu bat da, ez ondarearen kuota edo proportzio bat.

3.-OINORDETZAREN ASPEKTU FORMALA

11.-Testamentua: *tesmento*

Testatzaileak aldebakarreko negozio juridiko honetan bere hil ondorengorako borondatea adierazten du. Erabat errebokagarria da, hil arteraino.

12.-Testamentu mankomunatua: *testamento mancomunado*

Bi pertsonak testamentu berean haien borondatea adierazten dutenean, ondasun amankomunetikiko eta bakoitzaren ondasun propioetikiko. Kode zibilean debekatua dago, baina Foru zuzenbideetan onartzen da: Katalunian, Nafarroan, Aragoan, EEA... Normalean senar-emazteen artean ematen da.

13.-Komisario bidezko testamentua: *testamento por comisario*

Testatzaileak pertsona bat izendatzen du, komisarioa. Testatzailea hiltzean komisarioak erabakitzen du nola banatu eta nori haren ondasunak. Normalean ere senar-emazteen artean egiten da.

14.-Oinordetza kontratua edo ituna: *pacto sucesorio, contrato sucesorio*

Kasu honetan pertsona batek itun edo kontratu honen bitartez bere ondasun baten, batzuen edo guztien etorkizuna beste pertsona batekin, gehienetan seme-alaba batekin, hitzartzen du. Itun hau printzipioz errebokaezina da, nahiz eta itunean bertan berau errebokatzeko arrazoiak ezarri. (Gogoratu Euskal Herrian baserriak transmititzeko sistema)

VIII.-IRAKURGAIK

1. Oinordetza eta Konstituzioa

LÓPEZ Y LÓPEZ, Ángel M. (1990): "La garantía institucional de la herencia", *Derecho Privado y Constitución*, 3. zb., 29-62.

ROMERO COLOMA, Aurelia M^a (1997): "El derecho a la herencia en el ordenamiento jurídico español. Especial referencia a la función social de la herencia", *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 638. zb., 159-160.

2. Sarrera

PUIG FERRIOL, Luis (1999): "Introducción al Derecho Sucesorio catalán", *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 651. zb., 487-523.

3. Jaraunlea eta legatiduna

ALBALADEJO GARCÍA, Manuel (1978): "Sucesor universal o heredero y sucesor particular o legatario", *Revista de Derecho Privado*, 737-749.

4. Bestelako tresnak

CANTERO NUÑEZ, Federico eta Héctor R. PARDO GARCÍA (1996): “Acerca de la designación de beneficiario de un seguro de vida desde la óptica del Derecho de Sucesiones”, *Revista de Derecho Privado*, 80 . zb., 707-721.

MUÑIZ ESPADA, Esther (1995): “Tratamiento en la herencia del seguro de vida para caso de fallecimiento”, *Anuario de Derecho Civil*, 1633-1708.

XI.-KOMENTATZEKO TESTUAK

(1) **Charles Alexis Clérel de TOCQUEVILLE, *Amerikako Demokrazia I (De la démocratie en Amérique: 1835-1840)*, Bilbao, Klasikoak, 1995, 65-67:** Harritu egiten nau antzinako eta egungo publizistek giza arazoan garapenean eragin handiagorik ez egotzi izana oinordetza-legeei. Egia da lege hauek maila zibilekoak direla; baina erakunde politiko guztien buruan jarrita egon beharko lukete, eragin itzela baitute herrien gizarte-egoeran, eta honen adierazpen baino ez dira lege politikoak. Gainera, legeek era ziur eta uniformeak dute gizartean eragiteko; nolabait ere, jaio baino lehen jabetzen dira belaunaldiez. Horiei esker, ia jainkozkoa den ahalmenaz hornitzen da gizakia bere antzekoen etorkizunarekiko. Legegileak behin arautzen du hiritarren oinordetza, eta atsedean hartzen du hainbat mendez. Bere egintza abiarazi ondoren, ken dezake eskua; makinak bere indarrez jarduten du, eta bere kabuz bezala bideratzen da aurrez ezarritako helmugarantz. Tankera zehatz batez eratua, bururen baten inguruan biltzen, kontzentratzen, multzokatzen da jabetza, eta laster boterea; lur-aristokrazia sortarazten du nolabait ere. Beste printzipio batzuen gidaritzapean, eta beste bide batetik eramana, are bizkorragoa da berorren ekintza; zatitu, banatu, barreiatu egiten ditu ondasunak eta boterea; orduan, gertatzen da batzuetan izutu egiten duela martxa horren bizkortasunak; abiada hori geldiarazteko itxaropenik gabe, eragozpen eta oztopoak jarri bahi izaten zaizkio aurrean; aurkako ahaleginen bidez orekatu nahi izaten da horren ekintza; alferrikako ardurak! Suntsitu edo lehertarazi egiten du aurrean aurkitzen duen guztia, altxatu eta erori ibiltzen da etengabe, azkenean hauts mugikor eta ukiezina bakarrik gelditzen den arte ikusteko moduan, eta bertan demokrazia ezarria.

Oinordetza-legeak aitaren ondasunak seme-alaba guztien artean berdin banatzen uzten badu, eta are gehiago agintzen badu, bi motakoak izaten dira ondorioak; garrantzizkoa da arretaz bereiztea, helburu berenantz jotzen duten arren.

Oinordetza-legearen indarrez, jabe bakoitzaren heriotzak iraultza sortzen du jabetzan; ondasunak ez dira nagusiz bakarrik

aldatzen, baita, nolabait esateko, izaeraz ere; zati txikiagotan banatzen dira etengabe.

Hori da legearen ondorio zuzena eta, nolabait ere, materiala. Legeriak banaketa-berdintasuna ezartzen duen herrialdeetan, ondasunek, lurrari buruzkoek batez ere, murrizteko joera iraunkorra izan behar, beraz. Hala ere, legeari bere kabuz utziko balitzaio, legeria horren ondorioak luzarora bakarrik nabarituko lirateke; zeren eta, familian ez badaude bi seme-alaba baino gehiago (eta Frantzia bezalako herrialde jendetsu bateko familietan batez beste hiru omen daude), seme-alaba hauek aitaren eta amaren ondasunak banatzean, ez dira hauetako bakoitza banaka baino behartsuago izango.

Baina banaketa berdinen legeak ez du ondasunen etorkizunean bakarrik eragiten; jabeen ariman ere badu eraginik, eta hauen grinei hots egiten die lagun diezaioten. Horren zeharkako ondorioak dira aberastasun handiak, eta lur-jabetza handiak batez ere, bizkor suntsitzen dituztenak.

Oinordetza-legea primutza-legean oinarritzen den herrietan, lur-jabetzak gehienetan belaunaldiz belaunaldi eskualdatzen dira zatitu gabe. Ondorioz, famili izpiritua lurrean gauzatzen da nolabait ere. Familiak lurra errepresentatzen du, lurrak familia; honen izena, jatorria, aintza, boterea eta bertuteak betikotzen ditu lurrak. Iraganaren lekuko galezina da, eta geroko izatearen berme preziatua.

Oinordetza-legeak banaketa berdina ezartzen duenean, suntsitu egiten du famili izpituaren eta lurrari iraunaraztearen artean zegoen lotura estua; lurrak ez du jadanik familia errepresentatzen, belaunaldi bat edo biren buruan zatitzea eragotzi ezin denez, garbi baitago etengabe murriztu eta azkenean zeharo desagertuko dela. Lur-jabe handi baten seme-alabek, gutxi badira edo patua alde badute, izan dezakete beren sortzailea baino behartsuago ez izateko itxaropenik, baina ez ondasun berberak izatekoa; seme-alaben aberastasuna gurasoarena ez bezalako elementuz osatuko da halabeharrez.

Nolanahi ere, lur-jabeei sentimendu, oroitzapen, harrotasun edo lurrari iraunarazteko gogoia bezalako interes handi bat kentzen diezun momentutik, ziur egon lehentxeago edo geroxeago lurra saldu egingo dutela horiek, diru-interes handia baitute salmentan, kapital higigarriek besteek baino korritu gehiago ematen dutelako eta momentuko grinak asetzeko askoz egokiagoak direlako.

Behin zatitu ondoren, lur-jabetza handiak ez dira inoiz berrosatzen, proportzioan jabe txikiak etekin handiagoa ateratzen baitio bere landari jabe handiak bereari baino; honek baino askoz garestiago saltzen du, beraz. Honela, aberatsa jabetza zabalak

saltzera bultzatu duten kalkulu ekonomikoek are arrazoi handiagoz eragotziko diote jabetza txikiak erostea, handiak berrosatzeko.

Famili izpiritua deitzen dena gizabanakoaren berekoikeriaren ilusioan oinarritzen da sarri. Betikotzea eta nolabait ere hilezkortzea lortu nahi izaten da berbilobengan. Famili izpiritua amaitzen den puntuan, bakoitzaren berekoikeria agertzen da bere benetako joerekin. Familia gauza lauso, zehazgabe, ziurgabe bezala agertzen zaionez izpirituari, bakoitza bere orainaren erosotasunaz arduratzen da; ondorengo belaunaldiaren ezarpenen pentsatzen da, baina gehiagorik ez.

Ez da, beraz, familiari iraunaraztea pentsatzen, edo bestela lur-jabetza ez bezalako beste bide batzuetatik betikotu nahi izaten da.

Honela, oinordetza-legeak, jabetzak ukigabe gordetzea zaildu ez ezik, horretan saiatzeko gogoia ere kentzen die familieei, eta, nolabait ere, berarekin batera beren hondamendian laguntzera bultzatzen ditu.

Banaketa berdinarenean legeak bi bidetatik jokatzeko du: gauzaren gain jardutea, gizakiarengan dihardu; gizakiarengan jardutean, gauzara iristen da.

Bi ere horietan lortzen du lur-jabetzari sakon erasotzea eta familiak nahiz aberastasunak bizkor desagertaraztea.

(2) **AGE 1963/1/22 (RAJ 447)**: Que la sucesión a título universal, equivale a herencia en sentido subjetivo, *quam successio in universum jus quod defunctus habuerit*, ocupando el heredero en la sucesión universal la misma posición jurídica que tendría el causante con respecto a las relaciones todas, que no son inherentes a la personalidad de éste y que no son atribuidas como bienes independientes, aislados, a un determinado suelo, mientras en la sucesión a título particular, la transmisión se opera para uno o más derechos singulares del causante, o para todos sus actuales derechos *uti singuli*, el uno distinto e independiente del otro, por lo cual heredero es aquel sucesor a quien es atribuido la totalidad de las relaciones patrimoniales del difunto, o una parte alícuota de aquéllas, independientemente del nombre con que sea designado, legatario es el sucesor en bienes o derechos determinados, concepto confirmado por el art. 768 de nuestro Código Civil, pues si el heredero instituido en una cosa cierta y determinada ha de ser considerado como legatario, recíprocamente el legatario de parte alícuota habrá de ser calificado como heredero. Que pese a ello, esta Sala viene manteniendo con reiteración -Sentencias 16 octubre 1940, 11 enero 1950 y 30 junio 1956- el carácter espiritualista de la sucesión en nuestro sistema civil tradicional y actual, en el cual la voluntad del causante tiene rango de ley, y a ella y a la intención

evidente del testador ha de supeditarse para definir la naturaleza del derecho de los llamados a la herencia, sin dejar de valorar el criterio objetivo latente en el derecho comparado, afirmando que dentro de la dogmática de nuestro Código Civil, para que pueda ser calificado de heredero el llamado a una sucesión, ha de reunir un doble requisito: (a) Carácter universal del llamamiento; y (b) Que tenga lugar el mismo a título de herencia y no de legado, es decir, voluntad evidente de asignar el sucesor nombre y carácter de heredero (art. 668) de tal forma que si el primer requisito no mediara, y en lugar de atribución universal el llamamiento se limita a circunscribirse a cosa cierta y determinada, no habría heredero, sino legatario (art. 768), y si falta el «nomen, heredis», es decir, la expresión formal en el testamento de asignar este carácter de universalidad al sucesor, se estará en presencia de un legado, que, si estriba en una cuota será el legado de parte alícuota, de tradición en nuestro derecho. Que consecuentemente con esta doctrina, fundada en el sistema romano de la sucesión *mortis causa*, inspirador de nuestra legislación, acudiendo al *nomem iuris* para conocer la naturaleza del llamamiento de la cláusula décima del testamento discutido, hay que concluir se trata de un legado, si bien por su contenido reviste un carácter universal, que obliga a calificarle de parte alícuota al que, dada la naturaleza, alcance y efecto de esta especie de legado y la ausencia de su reglamentación en nuestro Código Civil, deben serle aplicables determinados preceptos legales relativos al heredero, y muy especialmente aquellos cuyo fin inmediato es el conocimiento por el sucesor del patrimonio en que haya de participar, su cuantía y composición, punto en el que la semejanza entre el heredero y el legatario de parte alícuota aparece más destacada.

Begiratu ere ENZOEE 1956/7/30 (RAJ 2582) eta 1959/1/5 (RAJ 117).

(3) **AGE 1963/1/24 (RAJ 518)**: Entre el heredero propiamente dicho y el sucesor usufructuario, aunque lo sea a título universal, sobre todo cuando su designación es voluntaria y no legal, como ocurre en el presente caso, median profundas y esenciales diferencias que dan lugar a la imposibilidad de confundirlos, como son, entre otras, las siguientes:

Primero. Por su naturaleza jurídica la herencia implica, conforme al art. 660 del CC, la transmisión del caudal relicto del causante en su integridad (*universum juscuod defunctus habuerit*), de forma tal, que el heredero al adquirir en bloque o en parte alícuota el patrimonio de aquél en su conjunción de derechos y obligaciones (arts. 659 y 661), se coloca respecto del mismo en igual situación que el difunto, en tanto que en la sucesión usufructuaria, el designado se sitúa respecto de dicho caudal en posición distinta de la que gozaba el anterior propietario por sucederle tan sólo era una parte cualitativa de su contenido económico, cual es el goce o disfrute sobre cosa ajena (art. 467) sin que se le transfiera el *jus*

disponendi cualificativo del dominio, según el art. 348, lo que hace que el contenido de su derecho se asemejó a un *uti singuli*, comprendido en el art. 660 en relación con el 668 al tener que coexistir con el nudo propietario instituido también universalmente, aparte de que mientras la herencia integra una figura jurídica de tracto único, el usufructo lo es de tracto sucesivo (art. 474).

Segundo. Por el título de que dimanen, el primero es de adquisición traslativo del dominio sin disgregación alguna y con todas sus consecuencias, mientras que el segundo, si bien es igualmente adquisitivo, es además constitutivo de un *jus in re aliena* que provoca el desmembramiento de la propiedad al pasar el *jus fruendia* persona distinta de aquel a quien se atribuye la facultad de disposición.

Tercera. Por el modo de entrar en el goce de los bienes, aunque ambos derechos (arts. 661 y 681) se transfieran a sus titulares desde la muerte del causante (art. 657), la posesión que es lo que realmente integra el derecho de usufructo pasa directamente al heredero (art. 44) que por analogía con lo dispuesto para los legados bien por sí (arts. 859 y siguientes, 883 y 386) o por medio de los albaceas (arts. 1027 y siguientes) debe entregarla al usufructuario, que no puede entrar en su disfrute por actos de su propia autoridad, aunque esté facultado para reclamarla (art. 885) con lo que su adquisición no se verifica de forma inmediata; como en la herencia, sino mediatamente a través del sucesor hereditario.

Cuarta. Por su duración, el instituido heredero adquiere su derecho por tiempo ilimitado y lo transmite a los suyos por gozar sobre los bienes de iguales facultades que su causante, mientras que en el usufructo, la supervivencia de su titular constituye una «*condictio juris*» de su efectividad (art. 513) dada la temporalidad y la cualidad de *intuitus personae* de este derecho, lo que le convierte en intransmisible por actos «*mortis causa*», aunque no *inter vivos*, según el art. 480, y origina la imposibilidad de que respecto de él opere el derecho de representación (art. 761).

Quinta. Por los efectos de su renuncia, la repudiación de la herencia provoca la reversión de los bienes a la masa hereditaria mediante el derecho de acrecer (arts. 922 y 981) o la apertura de la sucesión legítima, en su caso en tanto que la del usufructo, y salvo los supuestos de los arts. 469 y 987, da lugar a la consolidación del dominio en los nudos propietarios.

Y sexta. Por sus efectos, el heredero responde de las cargas de la herencia, no sólo con los bienes de ésta, sino con los suyos propios (*ultra vires*), conforme a los arts. 1003 y 1084, salvo la aceptación a beneficio de inventario, autorizada por los 1010 y siguientes (art. 1023, núms. 1º y 3º), mientras que el usufructuario, únicamente queda afectado por lo general por los legados de pensión vitalicia y

alimentos (art. 503) debido a la temporalidad de su disfrute, asemejándose con ello a los legatarios que responden de las cargas que les fueron impuestas (art. 858) o de las que existieran cuando toda la herencia se hubiese distribuido de esa forma (art. 891) sin responder con sus bienes particulares, si bien todos estos gravámenes repercuten en el usufructo, porque al disminuir el caudal mediante su pago, se merman correlativamente los réditos de tal derecho, que recaen sobre el patrimonio neto y no sobre la totalidad de la herencia, aunque para evitarla su titular está facultado para utilizar los derechos que le confiere el art. 510; de todo lo cual se deduce que el sucesor usufructuario no puede confundirse con un heredero ni con un legatario de parte alícuota y que, aunque esté designado a título universal, no se trata de un continuador de la personalidad del testador a efectos de no poder impugnar los actos por éste realizados cuando, como en este caso, lesionan sus intereses nacidos, no del usufructo, sino de su condición de heredero de otra persona, con lo que decae el cuarto y último motivo del recurso y procede la desestimación de éste en su totalidad.